



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Kultura eta Arte Mugimenduak

USE 2024

www.ehu.eus



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**MUGIMENDU
KULTURALAK ETA
ARTISTIKOAK**

**MOVIMIENTOS
CULTURALES Y
ARTÍSTICOS**

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

- Azterketa honek bi eredu ditu (A EREDUA / B EREDUA), eta haietako bakar bat aukeratu behar duzu.
- Eredu bakoitzak atal hauek ditu:
 - 1. galdera: A edo B irudiak (haietako bat aukeratzeko). 5 puntu.
 - 2. galdera: a, b eta c aukerak (haietako bat aukeratzeko). 2,5 puntu.
 - 3. galdera: a, b eta c aukerak (haietako bat aukeratzeko). 2,5 puntu.

Irudi edo aukera bati baino gehiagori erantzunez gero, lehenengoa baino ez da zuzenduko.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**MUGIMENDU
KULTURALAK ETA
ARTISTIKOAK**

**MOVIMIENTOS
CULTURALES Y
ARTÍSTICOS**

A EREDUA

1.- Proposatzen diren bi irudietatik, A eta B, bat aukeratu behar duzu iruzkina egiteko.

Irudiaren iruzkina egiteko, komeni da proposatzen den gidoiari jarraitzea (5 puntu. Atal bakoitzak puntu bat balio du):

- a) Forma- eta kolore-analisia: konposizioa, kolorea, testura,... Aztertu obraren alderdi formalak eta kromatikoak.
- b) Proposatutako obraren eta dagokion mugimenduaren artean dauden erlazioak azaltzea.
- c) Artelana egilearen ekoizpen artistikoaren ezaugarriekin lotzea.
- d) Gaiaren esanahaia eta artelanak duen funtzioa azaltzea.
- e) Aukeratutako artelanaren mugimendua bere garai historikoan kokatzea eta garai horri dagokion gizartearen ezaugarri orokorrak azaltzea.

A Sonia Delaunay: Prisma elektrikoak (1914)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**MUGIMENDU
KULTURALAK ETA
ARTISTIKOAK**

**MOVIMIENTOS
CULTURALES Y
ARTÍSTICOS**

B Tom Wesselmann: Natura hila 30 (1963)



2.- Proposatzen diren hiru aukeren artean bat bakarrik hautatu behar duzu garatzeko: (2,5 puntu)

- Burdinaren eta kristalaren arkitektura. Jatorriak, ezaugarriak, testuingurua, arkitektoak eta obra garrantzitsuak.
- Futurismoa. Testuinguru soziopolitikoak, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.
- Giza gorputza arakutzen. Body Art eta Yves Klein: Aro urdineko antropometria (1960).

3.- Proposatzen diren hiru aukeren artean bat bakarrik hautatu behar duzu garatzeko: (2,5 puntu)

- Inpresionismoa. Testuinguru soziopolitikoak, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.
- Arteak kontzientzia ekologikoari egindako ekarpena. Arte ekologikoa: Agnes Denes.
- Arkitektura Euskal Herrian: Arantzazuko santutegia.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**MUGIMENDU
KULTURALAK ETA
ARTISTIKOAK**

**MOVIMIENTOS
CULTURALES Y
ARTÍSTICOS**

B EREDUA

1.- Proposatzen diren bi irudietatik, A eta B, bat aukeratu behar duzu iruzkina egiteko.

Irudiaren iruzkina egiteko, komeni da proposatzen den gidoiari jarraitzea (5 puntu. Atal bakoitzak puntu ba balio du):

- a) Forma- eta kolore-analisia: konposizioa, kolorea, testura,... Aztertu obraren aspektu formalak eta kromatikoak.
- b) Proposatutako obraren eta dagokion mugimenduaren artean dauden erlazioak azaltzea.
- c) Artelana egilearen ekoizpen artistikoaren ezaugarriekin lotzea.
- d) Gaiaren esanahaia eta artelanak duen funtzioa azaltzea.
- e) Aukeratu duzun artelanaren mugimendua bere garai historikoan kokatzea eta garai horri dagozkion gizartearen ezaugarri orokorrak azaltzea.

A. Pablo Picasso: Daniel-Henry Kahnweilerren erretratua (1910)





Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**MUGIMENDU
KULTURALAK ETA
ARTISTIKOAK**

**MOVIMIENTOS
CULTURALES Y
ARTÍSTICOS**

B. Jackson Pollock: Number 31 (1950)



2.- Proposatzen diren hiru aukeren artean bat bakarrik hautatu behar duzu garatzeko: (2,5 puntu)

- a) Arrazionalismoa edo nazioarteko estiloaren ezaugarriak eta oinarritzko printzipioak: Mies van der Rohe.
- b) Dadaismoa. Testuinguru soziopolitikoak, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.
- c) Erakusketa unibertsalak 1851tik gaur egun arte: Kristalezko jauregia (Hyde Park, London, 1851) eta Dubaiko Erakusketa Unibertsala.

3.- Proposatzen diren hiru aukeren artean bat bakarrik hautatu behar duzu garatzeko: (2,5 puntu)

- a) XX. mendeko artea Euskal Herrian: Agustín Ibarrola: Omako basoa (1982/1985).
- b) Pop Art-a. Testuinguru soziopolitikoak, oinarri teorikoa, ezaugarriak, artistak eta obra garrantzitsuenak.
- c) Alison eta Peter Smithsonen brutalismo berria: arkitektura.



MUGIMENDU ARTISTIKO ETA KULTURALAK

Nahitaezkoa da ikasleak **terminologia teknikoa egoki erabiltzea**, egindako galderari erantzutean alderdirik esanguratsuenak argi eta koherentziaz adierazi ahal izateko.

1) Irudi-iruzkina: (5 puntu)

- a) Hautatutako artelana aztertu eta komentatzen du, eta haren alderdi formalak eta teknikoak azpimarratzen ditu. (Puntu bat)
- b) Hautatutako obraren alderdi esanguratsuenak, formalak, teknikoak eta adierazgarriak identifikatzen eta erlazionatzen ditu obrari dagokion mugimendu artistikoarekin. (Puntu bat)
- c) Hautatutako obraren alderdirik esanguratsuenak, formalak, teknikoak eta adierazgarriak egilearen jardura artistikoaren ezaugarriekin identifikatzen eta erlazionatzen ditu. (Puntu bat)
- d) Hautatutako artelanaren gaia eta funtzioa ezagutzen eta azaltzen ditu. (Puntu 1)
- e) Obrari dagokion korrante artistikoa beraren testuinguru historiko eta kulturalarekin lotzen du. (Puntu bat)

2) Gaien garapena: (gai bakoitzak 2,5 puntu balio du)

- a) Gaien garapenean alderdi hauek baloratuko dira: Ikaslearen erantzunak aukeratu dituen galderari dagozkie, eta gaiaren ezaugarriak (teorikoak, formalak, estilistikoak, teknikoak...) azaltzen ditu. (Puntu bat)
- b) Obra, estilo edo/eta gaiaren aurrekariak eta ondoren izandako eraginak azaltzen ditu. (0,5 puntu)
- c) Aukeratzen dituen gaiak beren testuinguru ideologiko, kultural, soziopolitiko eta ekonomikoan jartzen ditu. (Puntu bat)